

azpeitianzer?

udal aldizkaria 152. zenbakia
2012ko azaroa



Aktibitate ekonomikoaren berpizkundea

Enplegua, prestakuntza, lehiakortasuna
eta ekintzailetasuna bultzatzen
dituzten egitasmoak sustatuko
dituzte bailarako Udalek



Mari Jose Iturria:

*“Proiektu bizia izan dadin
nahi badugu, eta bertan
sinestea, denon artean
egindakoa izan behar du”*



Tasak:

*Udalak 2013 urtean
indarrean jarriko
diren tasa eta zergak
onartu ditu*

ale honetan zer?

3 Udal zerbitzuak

4 Hezkidetza

6 Elkarrizketa: Mari Jose Iturria

9 Enplegu plana

12 Tasak

14 Motxak

15 Agenda

16 Santo Tomas jaiak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonon.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailatza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

Udal erabakiak

Azaroaren 6an egindako Udalbatza Osoak honako erabaki hauek hartu zituen:

1.- Udalbatza Osoak 2012ko irailaren 24an egindako bilkuraren akta onartzea.

2.- Azpeitiko Udalak 2007ko apirilaren 19an Udalbatzan Arau Osagarrien Berrazterketaren inguruan Auzitegi Gorenak emandako epaia azaltzea.

3.- 2013. ekitaldirako zerga-agintarauari hasierako onarpena eman zitzaion Bildu eta Hamaikabat taldeen aldeko botoei esker. EAJ abstenuitu egin zen.

4.- 2012ko aurrekontuan 4. kreditu aldaketa onartu zen. Bildu eta Hamaikabatek alde bozkatu zuten eta EAJ abstenuitu egin zen.

5.- Taxi zerbitzurako 2013ko tarifak aho batez onartu ziren.

6.- Irisgarritasuna bermatzeko obra baimenei dagozkien Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko Zergaren kuotan hobaria ematea aho batez onartu zen.

7.- Gizarte Zerbitzuak departamentuaren baitan, 3. mundurako proiektuak eta herriko elkarteak diruz laguntzeko oinarriak aho batez onartu ziren.

8.- Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna: adierazpen instituzionala aho batez onartu zen.

9.- Galdera eta erreguak.

Udal zerbitzuak

Gaurkoa nola... BIHARKOA HALA



Auzo-konposta

Lursailik ez duten familientzat herrigunean konposta egiteko gune berezi batzuk jarriko dira datorren hilean Azkoitian; zazpi etxebizitzatik gorako taldeentzat izango dira gune horiek eta talde horretako kideen artean konposta egiteko aukera izango da. Auzo-konposta guneak jendea apuntatu ahala jarriko dira martxan, eta beraz, interesatuei izena ematea gomendatzen zaie, taldea osatu bezain pronto euren auzoan gune horietako bat jartzeko. Behin konposta egindakoan erabilerarik ematen ez bazaio, mankomunitatea arduratuko da bildu eta baserritarren artean banatzeaz. Interesatuek mankomunitatean eman behar dute izena: 943 85-73-19 edo ueue@udal.gipuzkoa.net.




Auto-konposta
NORBERAREN ETXEAN

Auto-konpostagailu bat eskuratuta bakoitzak bere etxeko hondakin organikoa konpost bihurtu ditzake, erraz eta zailtasunik gabe. Horretarako ezinbestekoa da lur sail bat izatea auto-konpostagailua bertan jarri ahal izateko.



Auto-konposta
PARTEKATUA

Auto-konposta partekatua ere egin daiteke. Bi etxebizitzaren artean lur-sail bat konpartituko litzateke, bi familien konposta egiteko. Egindako konposta familien artean banatuko litzateke eta norberak egitearen onura berdina litzuke.



Bermikonposta

Bermikonposta herriguneko etxebizitzetarako da; lur-zizare gorri bidez etxeko hondakin organikoa humus bilakatzen da. Oso toki gutxi behar duen ontzi bat erabiliz egiten da. Haragi eta arrain hondakinak ezin ditu konpostatu, baina hala ere, hobari ekonomikoak eta jarraipenerako zerbitzuak izango dira.

Animatu
auto-konposta egitera!
Udalburoetan, liburutegietan eta ohiko tokietan egongo diren izena-emateko onriak bete eta entregatu Urola Ertiko Zerbitzu Mankomunitatean edo zure udalaldean.
Tel: 943 85 73 19
+info: www.urolaerria.org


Hezkuntza saileko ikastaroak

Hezkuntza sailak ikastaro desberdinak jarri ditu martxan. Ikastaro guztiak Udalak Damaso Azkue auzoan duen lekuan edota Sindikatu Zaharrean eskainiko dira eta parte hartu nahi duten herritarrek, izena eman dezakete dagoeneko.



Marrazki artistikoa eta margo lanak eta Ebaketa eta jantzigintza ikastaroak Marian Alberdi eta Maite Ostrak emango dituzte, hurrenez hurren, Damaso Azkueko lekuan. Sindikatu Zaharrean, aldiz, hamaika izango dira ikastaroak. Edurne Salegik Norbera eta umea elikatzen eta Umetxo bat dugu gure bizitzan amentzat ikastaroak emango ditu, Alex Silvak komunikazio tailerra, Amaia Garmendiak gitarra klaseak emango ditu eta Presen Galarragak Chi Kung.

Azkenik, hizkuntza ikastaroak ere prestatu dira; batetik, Arantxa Martinek zeinu hizkuntza irakatsiko du eta Meryem Harribouk, arabiera. Bi ikastaroak Sindikatu Zaharrean egingo dira.

Aurtengo azaroaren 25ean prebentzioaren garrantzian jarri nahi du arreta Udalak

Duela bost urtetatik hezkidetza proiektua eskaintzen da herriko ikastetxe guztietan

azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna dela eta, Udalak urtero bezala adierazpen instituzional bat onartu du eta bertan emakumeenganako indarkeriarekin amaitzeko hainbat konpromiso hartu ditu. Aurten arreta berezia eskaini nahi dio prebentzio lanari, eta indarkeria sexistarekin amaitzeko prebentzioaren garrantzia azpimarratu du.

“Indarkeria matxistarekin amaitzeko prebentzioaren garrantzia azpimarratu nahi da aurten”

Duela bost urtetatik hezkidetza proiektua eskaintzen du Udalak herriko ikastetxe guztietan, eta proiektu honen bidez belaunaldi berriak berdintasun baloreetan hezteko bitartekoak eskaintzen ditu. Irakasle, ikasle eta gurasoei formazioa eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen zaizkie ea urte hauetan proiektua “arrakastatsua” izan dela diote Udal arduradunek.

Prebentzio proiektuarekin jarraitzeko konpromisoaz gain hauek dira Udalak hartu dituen konpromisoak: genero indarkeriaren biktimei arreta hobetzeko protokoloa aplikatzen jarraitzea, emakumeentzat jabetze eskolak antolatzen jarraitzea eta mugimendu feministak antolatzen dituen ekimenak bultzatzen jarraitzea.



“Azken urteotan urrats garrantzitsuak egin ditugu sexismoa gainditzeko, baina oraindik ez ditugu baldintza berdinak”



[Zein dira zuen proiektuaren helburuak?](#)

Hezkidetza programak bi ardatz nagusi ditu, batetik parekidetasuna eta beste batetik sexu-hezkuntza. Parekidetasuna lantzerakoan, gure egiteko nagusia zera da, gazteekin batera gogoeta egitea sexuen artean oraindik indarrean dagoen bereizkeriaz. Azken urteotan urrats garrantzitsuak egin ditugu sexismoa gainditzeko, baina oraindik gure munduan gizon eta emakumeok ez ditugu baldintza berdinak. Sexu-hezkuntzari dagokionez, gure ardatz nagusia plazera eta arduraz aritzea dira, norberaren desira ezagu-tzea, bestearen mugak onartzea, aniztasuna balioan jartzea, e.a. Orokorrean gure iparra tratu onak dira, alegia, gure buruarekin zein ondokoekin tratu onak behar ditugu, eta norabide honetan asko daukagu irabazteko.

[Ze mailetan esku hartzen duzue. Eta bakoitzarekin zein gai lantzen dituzue?](#)

Gure egitasmoa ikasleekin garatzen dugu bereziki, baina irakasle eta gurasoekin ere saioak egiten ditugu, ikasleekin LH6an, DBH2, 3, 4an eta 2. batxilergoan aritzen gara. Sexu hezkuntza 1h6an eta DBH2

eta DBH4an lantzen dugu. Urte bakoitzean gaia ikasleen premietara egokituz. Horrela, LH6an norberaren gorputzaren ezagutza eta emozioen lanketan zentratzen gara, DBH2an norberaren irudiaz, autoestimua eta harreman osasuntsuez aritzen gara, eta DBH4an harreman sexuala eta sexu aniztasunaz aritzen gara batez ere. Parekidetasuna DBH3 eta 2. batxilergoan lantzen dugu. DBH3an neskekin autodefentsa lantzen dugu eta mutilekin gizontasun ereduaz aritzen gara. Batxilergoko 2. mailan harreman afektiboez ari-tzen gara batik bat.

[Sexu aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen duzue. Azalduko al zenuke zerbitzua?](#)

Sexu aholkularitza bi modutan eskaintzen dugu, aurrez aurre eta internetez. Aurrez aurreko sexu aholkularitza bi kolektibori eskaintzen zaie gaur egun, emakumei eta gazteei. Gaztetxoenei gazte txokoan hilean behin eskaintzen diegu zerbitzua. Batetik, galderak eta kontsultak erantzuteko aukera dute gazteek, eta bestetik sexualitatea eta hezkidetzaren inguruko

gaiak lantzeko dinamikak planteatzen ditugu. Zerbitzu honi zubi izaera eman nahi diogu, gazteak eta feminismoaren artean. Izan ere, berdintasunaren alde diharduten elkarte eta taldeak, aurrera eraman diren eta eramaten diren borrokak gazteen-gana gerturatu nahi ditugu, emakumeek eta gizarte osoak izan dituen lorpenak ez baititu haizeak ekarri eta hortaz jabetzea garrantzitsua da. Emakumeentzat berriz, emakume txokoan hilean behin zabaltzen dugu aholkularitza zerbitzua eta oraingoz banakako arreta ematen hasi gara. Interneteko aholkularitza, berriz, edozein azpeitiarrek erabil dezake kontsultak eta galderak egiteko.

[Zerbitzua erabili nahi duenak nora jo behar du?](#)

Bertatik bertara azaldu daitezke edo internetez gurekin harremanetan jarri. Gaztetxokoan hileko azken ostiraletan izaten gara eta Emakume txokoan hileko azken larunbatean, goizetan, 10etatik 13etara. E-mailez ere gugana jo dezake azpeitikosexuaholkularitza@gmail.com helbidera.

[Beste zerbait?](#)

Ba herritar guztiak gonbidatu nahiko genituzke lan eder honetan inplikatzera, aholkularitza zerbitzua erabiltzera, parekidetasun mahaiak antolatutako ekimenei adi egon eta parte hartzera, zuen inguruan gaiaz eztabaidatu eta urratsak ematera. Denon esku dago gizon eta emakumeon arteko parekidetasunera hurbiltzea, harreman libre eta osasuntsuagoak lortzea, gure arteko harremanetan tratu onak sustatzea, sexualitatea norberaren desiran eta bestearekiko begirunean oinarritzea. Zerbitzu honek bide oso emankorra izan du orain arte, eta aurrerantzean ere hala izango dela sinisten dugu, denon inplikazioarekin.

Elkarriketa

Mari Jose Iturria

Hezkuntza saileko batzordeburua

“Proiektu bizia
izan dadin nahi
badugu, eta bertan
sinestea, denon
artean egindakoa
izan behar du”



Azpeitiko historia biltzen hasi da Udala, ondoren herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleen artean zabaltzeko asmoz. Proiektu honen bidez, herriko gazteek euren herriaren historiagertutik ezagutzeko aukera ematea da. “Hiri Hezitzaile kontzeptua barneratzen joan behar dugu. Elkarlana, elkartasuna eta heziketa ezinbesteko balioak dira gizarte indibidualista honi aurre egiteko”, agertu du Mari Jose Iturria zinegotziak.

Gero eta gehiago entzuten da Udala hezkuntza eragile dela, zer diozu honetaz? Herritarren heziketan denok gara partaide. Horrela izan da historikoki eta horrela izango da, kontua da nola eta noraino. Azpeitiko Udalaren lanari dagokionez, nire iritziz, globalizazioaren XXI. mende honetan, bere ohiko funtzioez gain hezkuntzako eragilea izatea ezinbestekoa du. Honetaz jabetuz, Hiri Hezitzaile kontzeptua barneratzen joan behar dugu, elkarlana, elkartasuna, heziketa ezinbesteko balioak dira, baina ez paperean bakarrik, eguneroko ekintzetan baizik. Konbentzimendu honetatik abiatuta udalak hainbat herri egitasmo plazaratu ditu eta hauetako bat izan da Azpeitiko Ondarea Unitate Didaktikoetan egitasmoa.

Nola sortu da Azpeitiko ondarea unitate didaktikoetan proiektua sortzeko beharra?

Lehen esandako ildoari jarraituz, hauxe galdetu genion gure buruari legegintzaldi honen hasieran: “Norberaren herria ezagutzeak, Azpeitia ezagutzeak, zer balio izan dezake?”. Erantzuna geure buruari eman genion: “Zaila izaten da ezagutzen ez dena maitatzea; ez baduzu maite, zaila inplikatzeko; ez badago inplikaziorik, zaila herriak aurrera egitea”. Gure nortasunaren eta kulturaren biziraupenaz aritu ginen eta honen aurrean herriko ondarea gazteenei helarazteko lana ezinbestekoa zela ohartu, herriaren ezagutzak baldintzatzen baititu hein handi batean herriaren oraina eta etorkizuna. Eta ikusi genuen baita, herritar guztiak

hartu behar genituela kontutuan, ez gazteak bakarrik. Pentsaera horretatik abiatuta, Azpeitiko ondarea unitate didaktikoetan izeneko proiektua sortu da.

“Zure herria ez baduzu ezagutzen, ez duzu ezagutuko mundua”, esan zuen aurkezpenean Jantxo Madariagak (700. urteurreneko liburuen koordinatzailea), herrien historiak duen garrantzia azpimarratzeko, eta ez da gezurra.

Herriko historiaren eta ondarearen inguruko informazioa hiru liburuxkatan jasoko du Azpeitiko Udalak, eta lan hori Hik Hasik, euskal hezkuntzaren alorrean lan egiten duen erakundeak, egingo du bertako teknikari den Olatx Aranguren azpeitiarraren gidaritzapean.



Lan hau egiterako orduan ezin dugu ahaztu Azpeitiko ondarea plazaratzeko aurrez egin diren lanak. Egile guztiak aipatzea luzeegia izango litzateke, baina Imanol Elias historialari azpeitiarra gogoratu beharra dugu: Bereziki hark egindako lana aitortu behar da, bere lanaren ondorena baita hau. Imanol Eliasek udalaren proiektua “poz handiz” hartu duela esan behar dugu

“Historia ikusteko eta kontatzeko modu bat baino gehiago dagoenez, ikastetxeekin elkarlanean garatu nahi da”

Nola garatuko da eta noizko egongo da erabilgarri?

Lehenengo unitate didaktikoa, papelean, datorren ikasturte hasierarako prest izatea da; gure asmoa, 2013-2014 ikasturterako, hain zuzen. Beste bi unitateak ondorengo ikasturteetarako. Egindako produktua osatua izateko, unitate bakoitzak Gida Didaktikoa izango du, bertan datu osagarriak egongo lirateke, unitatean esaten dena sakonago azalduz. Gida sarean jarriko litzateke, osagarri gisara. Gure iritziz, interesgarria da Azpeitiko ondareaz gure haurrek ikastea eta sakontzea, baita interesa dute edonork. Unitatea udal web orrian egongo litzateke eskuragarri, eta aurreikusten ari herriko ibilaldi historikoak ere jartzea. Gure ingurunea oso aberatsa da eta askotan etxe ondoan zer daukagun ere ez dakigu.

teke eskuragarri, eta aurreikusten ari herriko ibilaldi historikoak ere jartzea. Gure ingurunea oso aberatsa da eta askotan etxe ondoan zer daukagun ere ez dakigu.

Zeintzuk izango dira unitateen oinarriak?

Lehen Hezkuntza hiru ziklotan banatuta dago, eta liburuxka bakoitza ziklo batean erabiliko dute. Datorren irailean prest izango dute lehenengo liburuxka, aurreneko zikloko ikasleentzat; 6-7 urte dituztenentzat, alegia. Irakurtzen orduantxe hasten dira, eta horregatik lehendabizikoa testu gutxi eta argazki askokoa izango da. Bigarren unitatea, Aro Berriatik Aro Garaikidera (XVI-XVIII) arteko denbora tarteak bilduko duena, 9-10 urte artekoentzat izango da. Ikasleak hirugarren mailan ikasten du ondo irakurtzen, bigarren zikloan, eta hor konplexutasun pixka bat joango da. Eta, azkeneko unitatea, 11-12 urteko gaztetxoei zabalduko diete. XIX, XX eta XXI. mendeko Azpeitia izango dute ardatz azken horiek. Azkeneko liburuxkak DBHrako ere balio dezakeela uste dugu, baita etorkinentzat ere, hemengo historiaren eta kulturaren berri izan dezaten. Hau da aurreikusten dena, baina ikastetxe bakoitza libre da berak nahi duen erabilera emateko.

Herriko ikastetxeak elkarlanean arituko dira proiektu honetan. Zer garrantzia du horrek?

Historia ikusteko eta kontatzeko

modu bat baino gehiago dagoenez, ikastetxeekin elkarlanean garatu nahi da proiektua. Garbi dagoena da horrelako proiektu batek bizia izatea nahi badugu eta proiektu honetan sinestea nahi badugu, denon artean egindakoa izan behar duela. Azpimarratzekoa da, herriko ikastetxeek esku zabalik hartu dutela gure proiektua. Hauek, bakoitzak bere hezkuntza proiektuaren barruan, lantzen dute herriko historia. Gure ekarpena momentu honetan eskoletan egiten ari dena osatzea da, denon artean osatutako ildo batzuei jarraituz.

Beraz badugu oraindik zer ikus eta zer ikasi?

Lehen esan bezala, altxor handia du gure herriak historia eta kulturari dagokionez. Ohiturak, tradizioak, festak, kirolak ... Gure historia sozial, ekonomikoa eta kulturala sozializatzea eta hedatzea ezinbesteko lana da. Eta balioaz hitz egitekoan, badugu non begiratu. Ez dugu urrutira joan beharrik ikusteko nola atera den herri bat egoera zailetatik, nola iraun dugun. Gure ingurunea oso aberatsa da eta askotan etxe ondoan zer daukagun ere ez dakigu.

Beste proiekturik ba al duzue esku artean?

Udalak hainbat proiektu garatu ditu azken urte hauetan. Hauetatik beharrezkoak direnak bultzatzen jarraituko dugu eta beste batzuk martxan jartzeko asmoak ere baditu. Dударik ez dugu etengabe aldatzen ari den gizarte honetan hezkuntza eredua, edukiak aldatzen ari direla eta udalaren lana ere egokitzen joan beharko duela. Egungo krisi ekonomikoa eta soziala kontutan hartu behar ditugu egitasmoak plazaratzerakoan. Horrela esku artean ditugun egitasmoak honako hauek lirateke: ikasle ekintzaileak sortzeko proiektua; belaunaldien arteko harremanak bultzatzeko proiektuak, partaidetza suspertzeko proiektuak, ingurumenarekin zerikusi dutenak, ezberdinen arteko harremana bultzatzeko proiektua ... eta baita gure herria ezagutzeko baliagarri diren ibilaldi pedagogikoak. Elkarrizketa hau ez nuke bukatu nahi herriko kultur elkar te eta ikastetxeek egiten dute lan eskerga aipatu gabe. Denon ekarpenarekin eta elkarlanarekin ez dugu dudarik denok irabazten aterako garela.

Krisialdetik irteteko lehen pausoak



Bailarako udalek
lanpostuak
sortzeko oinarriak
finkatu dituzte

Krisi egoera gelditzen saiatzea eta lanpostuak sortzeko oinarriak jartzea. Horiek dira Urola Erdiko udalek abian jarri duten Enplegu Planaren helburu nagusiak. Orain hilabete eta erdi martxan jarritako proiektuak pausoak ematen darraio eta bailarako diagnosa egin da dagoeneko.

“Udalok garbi dugu: herritarrei lagundu behar diogu, krisi aldi honetatik beraiekin eta beraiei esker aterako gara. Gure konpromisoa gertu egotea da, laguntza ematea. Diagnostikoa egin da eta oso txarra da egoera, goitik behera datorren sentazioa oso barneratua dago, eta datuak egunetik egunera gordinagoak dira. Enplegu galera eta enpresa txiki

eta ertainen itxiera azkartu egin da. Autonomoak gaizki dabilta, merkataritza ere gaizki ari da pasatzen... Krisiak nabarmen eragiten du eta BEZaren igoerak kolpe handia suposatu du”, azaldu du Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak.

“Herritarrei lagundu behar diegu; krisialditik beraiekin eta beraiei esker aterako gara ”

Datuak garbi erakusten dute; langabezia, EREak, kaleratzeak, enpresen itxierak... gero eta gehiago dira. Erabakiak hartu eta ekintza konkretuak diseinatu eta martxan jartzeko ordua da. Eskualdea une latzak bizitzen ari da, momentu erabakigarria da eta etorkizuneko oinarriak jarri behar dira.

“Udalok egoera honen jabe gara, oso egoera zaila da. Krisialdia latza da, eta egoera latz honen aurrean Udalek beste planteamendu bat egin behar dugu, guk ere beste Udalekin elkartu egin behar gara. Ez dago beste aukerarik. Elkartu eta elkarlana egin. Bestela neurri batean, gu ere jan egingo gaitu krisiak”, gaineratu du Etxeberriak.

DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO NAGUSIAK

Lan merkatuaren ingurukoak

1. 2012ko lehen hiruhilekoan Urola Erdiak %13,10eko langabezia tasa erregistratu du. Hala ere, hurrengo hiruhilekotan zifra hauek okerrera jotzea espero da. 2012ko uztailetik irailera, Urola Erdia, 1882 langabetu izatetik 2013 edukitzera igaro da, hau da 7%ko igoera izan du.
2. Gizonezko langabetuen kopurua %284,4 hazi da 2007tik 2012ra, emakumeena aldiz %120,5. Gizonezko langabetuen kopurua (1034), emakume langabetuena (979) baina handiagoa izatera iritsi da.
3. Langabetuen %52k 25 eta 44 urte bitartean ditu, langabetu gehien erregistratu diren segmentua.
4. 2012ko irailean, 2007ko irailean baino %23,27 kontratu gutxiago zenbatu dira. Gizonezkoen arteko kontratazioak %38,3 egin du behera, emakumeen kontratazioak aldiz, %7,9 egin du behera.
5. Kontratu mugagabeen kopurua nabarmen jaitsi da. Gero eta ohikoago dira aldi baterako kontratuak, 2012ko irailean 100 kontratatutik 94 aldi baterakoak izan dira.

Jarduera ekonomikoaren ingurukoak

1. Establezimenduen ekintzaile tasak behera egin du azken urteotan. 2011n, azken 6 urteetako Urola Erdiko tasarik baxuena eman zen.
2. 2007ko iraila eta 2012ko iraila bitartean enplegu gehien deuseztatu duten sektoreak industria eta zerbitzuak dira. Laukoiztu egin da jatorri bezala Eraikuntza sektorea duten langabetuak.
3. Kontratazioen jaitsiera nabarmena 2012ko iraila 2007ko irailarekin alderatuz gero: Industria (%--60,7), Eraikuntza (%--64,3), Nekazaritza (%--14,29) eta Zerbitzuak (%5,8).
4. 10 establezimendutatik 9k 10 langile baina gutxiago dituzte.
5. Sektore Industrial helduetako enpresa industrialen inplementazio handia. Honekin batera, ezagutzaren edota teknologia altuko inguruko sektore intentsiboen dinamismo eta enpresa falta. Unibertsitaterik ez dago ezta ere.

Prestakuntza/ezagutzaren ingurukoak

1. 10 langabetutatik 6k ez du derrigorrezko ikasketatik haratagoko prestakuntzarik. Orokorrean, prestakuntza maila baxua langabetuen artean.
2. 25 urtez azpiko 10 langabetutik 8k derrigorrezko ikasketak edota lanbide heziketa ikasi du. Soilik 25 urtez azpiko 10 langabetutik 2k ditu ikasketa unibertsitarioak.
3. Lanbide Heziketa ikasi duten langabetuen pisua gero eta handiagoa da langabetu guztien artean. Lanbide Heziketa ikasi duten langabetuen pisua %16Pk %22ra hazi da.
4. Langabetu Kopuru handien duen profila (langabetuen %62): 25 urtetik gorako eta soilik derrigorrezko ikasketak dituen gizon edo emakumea.
5. Orokorrean, Enpresak maila altuko ikasketak eta hizkuntzak eskatzen ari dira. Maila Baxuko ikasketak dituzten langileen eskaria nulua da galdeketa zabaldu den enpresen artean.



Eskualdeko arduradunak enplegu planaren inguruko bilera batean

Taula langabezi maila

Langabezia tasaren bilakaera 2006 – 2012 *

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012 1. Hiruhilekoa
AIZARNAZABAL	7,2%	8,0%	7,4%	14,3%	16,3%	17,1%	16,75%
AZKOITIA	5,8%	5,7%	6,6%	11,2%	11,3%	12,0%	13,15%
AZPEITIA	5,4%	5,1%	6,3%	10,2%	10,0%	11,2%	13,06%
BEIZAMA	2,7%	1,7%	3,4%	4,8%	3,2%	6,8%	9,28%
ERREZIL	5,5%	4,3%	5,6%	7,7%	7,9%	9,5%	9,42%
ZESTOA	6,2%	6,1%	7,1%	10,1%	9,8%	10,0%	12,04%
UROLA ERDIA	5,6%	5,4%	6,5%	10,5%	10,5%	11,4%	13,10%
GIPUZKOA	7,2%	6,9%	8,0%	11,0%	11,0%	11,7%	12,99%
EUSKADI	8,1%	7,6%	8,7%	12,1%	12,3%	13,5%	14,93%

Diagnosia eginda eta ondorioak aterata, Urola Erdia bailaran enplegua sortzeko ildo nagusiak zehaztu dira. Horrela, ekintza plana lau oinarritan nabarmenduko dela nagusiki aurreratu dute arduradunek:

- 1) Enplegu eta Prestakuntza proiektuak: Zailtasun handiak dituzten kolektiboen enplegu eta formakuntza aukerak hobetzeko diruz lagunduko dira gisa horretako proiektuak. (Emakumeak, kualifikazio gabeko gazteak urtebete baino gehiagoko langabetuak)
- 2) Ekintzailetasuna eta autoenplegu proiektuak sustatu: Enplegu berriak sortuko dituzten enpresa egitasmo berriak (kooperatibak, autoenplegua,...) diruz lagunduko dira.
- 3) Kontratazioak sustatuko dituzten eskualdeko interes estrategikoei loturiko proiektuak babestu.
- 4) Eskualdeko enpresen lehiakortasunaren alde egingo da, prestakuntza espezializatuen finantziazioaren bidez : ERE egoeran dauden langileen requalifikazioa edo aktibitate berrietarako langabetuen formakuntza.



Urola Erdiko alkateak bailarako egoeraren diagnostikoaren aurkezpenean

Modu honetan, 2007 urtetik dago Urola bailaran krisian sartuta. Urtez urte, krisia egoera areagotzen joan da gure bailaran. Azpeitian bereziki, "krisiaren nondik norakoak ongi aztertu behar baditugu, argi dago bere jatorria eraikuntza arloan kokatu behar dela".

"Esparru desberdinetan eskualdearen garapena hobetzen jarraituko dugu"

Azpeitiko ekonomiaren oinarria eta sekretua industria dela gauza garbia da baina industria hori, neurria handi batean, eraikuntzan oinarrituta dago. Horrela, eraikuntzan jarduten duten enpresa guztien pisua nabarmena da gure herrian. Altzairu enpresak ere aurki ditzakegu, eta hauek eraikuntzarekin guztiz lotuta daude. Altzairutegiak eraikuntzako sektorerara guztiz bideratuta daude.

Eraikuntzaren krisi honek beraz, Azpeitian oihartzun berezia izan du, gure ekonomia eraikuntzan oinarrituta zegoelako neurri handi batean. Horregatik, beharrezkoa da etorkizuneko ekonomia diseinatzea, lanpostu duinak sortzea izatea lehentasuna, gaurko industria indartuz eta behar duen garapenean lagunduz.

"Hau abiapuntua besterik ez da. Estrategian sakontzen segitzeko eta esparru desberdinetan eskualdearen garapena hobetu eta elkarlanean jarraituko dugu. Inork ez du soluzio magikorik, baina denon beharra dugu. Urolan industriagatik hasi behar dugu, Euskal Herriko ekonomiaren sekretua industria da eta formula ezaguna du: esportazioa, berrikuntza, enpresa sarea, gestioa, ikerkuntza, enpresa berriak sortzen laguntzea... Sektore emergenteak aukeratu eta apustua egin behar dugu: ekonomia berdea, energia, industria berriak, nanoteknologia, zahartzaroak... Bide horretan jarri gara buru belarri" azaldu dute bailarako alkateek.



Udalbatza 2013 urteko tasa eta zerga agintarauak onartzen

2013 urteko tasa eta zergek jarduera ekonomikoak lagunduko dituzte

Igoera Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) %2,7a izatea erabaki du Udalak, kiroldegiaren salbuespenarekin

2013 urteko urtarrilean indarrean jarriko diren zerga eta tasek %2,7ko igoera izango dute. Horrela erabaki zuen Udalbatzak (Bildu eta Hamaikabat alderdien aldeko botoekin eta EA-ren abstentzioarekin) azaroaren 6an, 2011ko abuztutik aurtengo abuztura arteko KPI kontutan har tuta.

“Ardura ekonomikoarekin kudeatu behar ditugu zerbitzuak”

Eneko Etxeberria alkateak agertu zuenez, “orokorrean % 2,7 (KPI)ko igoera izango dute zerga, tasek eta prezio publikoek 2013an.

Kiroldegia izan ezik, %6ko igoera izango da han eta iazko hobariak mantenduko dira, berriak gehituz. Izan ere, tasak ez dira soilik dirua biltzeko tresna, politika ekonomiko aurrerakoiak, herritarren bizi baldintzak eta justizia sozialean sakontzeko tresnak ere badira. Noski, ardura ekonomikoarekin kudeatu behar ditugu zerbitzuak baina helburua beti gure herria hobetzea da”.

Horrela, Udal Gobernuak 3 ardatzetan oinarritako tasa eta zerga agintaraua proposatu du:

1. HOBARIAK eta LAGUNTZAK. beharrak dituztenei. Langabetuei, iritsi ezin direnei eta familia ugariei laguntzekin jarraitzea bai Kirol Patronatuan, bai Euskara Patronatuan eta bai Gizarte Zerbitzuetan.

2. INGURUGIROA. Ingurugiroaren aldeko apustua egiten da eta auto elektrikoak erosten dituztenei zirkulazio zergan %50ko hobaria izango dute eta autokonposta egiten dutenek, %25a.

3. EKONOMIA. Herriaren egoera larriari aurre egiteko neurri hauek erabaki dira:
Komertzio berriak irekitzen dituztenak edo berrikuntzak egiten dituztenek obra lizentzia erdira jaitea.
Industria ibilgailuei (kamioi, erremolke, autobus eta traktoreak) igoerarik ez.
Industriako hobariak banaka aztertu.
Alokairua sustatzeko, etxebizitza hutsek %50ko IBI erreka goa.
Bertako produktuak saltzen dituzten baserritarrei %50ko hobaria

Salbuespenak

Kiroldegiari dagokionez, %6ko igoera izango da, ikastaroetan monitoreen kostua berdindu arteko igoera alegia. Igoera honen arrazoia, zerbitzu guztietan irailaz geroztik BEZa %8 edo 18tik, %21era igo dela da. Horrela, urteko familia-abonua 291,67 euro-takoa izango da eta banakakoa berriz, 187,66 eurokoa.



KIROL PATRONATUKO TARIFAK

	FAMILIA	HELDUAK	GAZTEAK
URTEKO ABONUA	291,67	187,66	118,42
HIRUHILEKOA	145,94	86,96	59,36
UDAKO HIRUHILEKO	182,36	108,68	74,26

Bestetik, konposta egileei aplikatzen zaien %25eko hobaria kendu egiten da eta auto-konposta egiten dutenei soilik ezarriko zaie hobaria. Etxebizitzentzat urteko tarifa berria zaborrean, berriz, 111,00 eurotik 114,00 eurotara pasatzen da.

Emakumeen Kulturarteko Gela berri-ro martxan



azaroaren 21ean hasi zuen ikasturtea Emakumeen Kulturarteko Gelak. Ekimenean parte hartu eta izena eman nahi duenak Udaleko Parekidetasun sailera (943 15 79 28) edo Emakumeen Txokora (943 15 70 55) gerturatu, idatzi edo deitu besterik ez du. Klaseak asteazkenetan 16.00etatik 17.30era eta ostegunetan 18.00etatik 19.00etara izango dira. Bertara gerturatzen diren emakumeek euskaraz ikasteko eta elkarren esperimentziak eta egoerak elkartrukatzeko aukera izango dute.

7 eta 13 urte bitartekoentzat igeriketa ikastaroa

azpeitiko Udal Kirol Patronatuak 7 eta 13 urte arteko haurrei zuzendutako igeriketako ikastaro trinkoa antolatu du. Ikastaroa azaroaren 28tik abenduaren 20ra bitartean izango da, 18:00etatik 19:00etara, eta Patronatuko bazkide direnek 47,56 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, berriz, 83,25 euro. Parte hartu nahi duten herritarrek edota informazio gehiago nahi dutenek, 943 81 41 21 telefono zenbakira deitu behar dute.

6.000 euro Caritasentzat




Urtero egin bezala, Zezenzale Batzordeak San Ignazioetako zezenketetan aterako irabaziak gizarte lanetan oinarritzen den talde bati eman dizkio. Aurten, Caritas elkarteak izan da onuraduna. Horrela, azaroaren 19ean udaletxean egindako ekitaldian, gizarte lanean oinarritzen den elkartearen ordezkari Maria Dolores Udabek 6.000 euro jaso zituen Zezenzale Batzordearen lehendakari Joxin Iriarteren eskutik.



Betharrameko areto berritua herritarren erakusketentzat irekita

betharram eraikineko areto gela berritu da eta Azpeitiko Udalak herritarrei zabaldu nahi die erakusketak egin ahal izateko. Zabaleran handitzeaz gain, zoru, zapai eta argi berriak jarri dira. Modu honetan, arte espresio guztiak hartzeko aukera du aretoa; eskultura, pintura, argazkia, marrazkia... Interesatuta dauden Azpeitiko zein kanpoko artistek Udaleko Kultura sailarekin jarri behar dute harremanetan, udaletxeko 3. solairura joanda edo 943 15 70 68 telefono zenbakira deituz.

agenda



Abendua

13, osteguna

ZINE FORUMA

"PURA VIDA (EUSKARAZ)"

Antolatzailea: TA3

SOREASU ANTZOKIAN

Ordua: 21:30

SANTA LUZI JAIK

ELOSIAGA AUZOAN

11:00etan Meza Nagusia

Ondoren hamaiketakoa

14:00 jubilatuentzatko bazkaria

Soinujoleak eta bertsolariak

AGENDA 21-k antolatutik:

"GURE INGURUARI BEGIRADA
BAT" izenburua duen Lehiaketa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoan

KHAMAR ELKARTEAK SAHARAR
HERRIAREKIN ELKARTASUNA

TINDUFEKO ERREFUXIATUEN

Kanpamenduetan garatzen
dituen proiektuen inguruko panel
informazioak eta argazki erakusketa

Lekua: Sanagustin Kulturunea

Herriko hiru ikastetxeetan janari
biketarako informazio puntuak eta
errefuxiatuen kanpamenduetako
argazki erakusketa

14, ostirala

AGENDA 21-k antolatutik:

"GURE INGURUARI BEGIRADA
BAT" izenburua duen Lehiaketa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoan

KHAMAR ELKARTEAK SAHARAR
HERRIAREKIN ELKARTASUNA

TINDUFEKO ERREFUXIATUEN

Kanpamenduetan garatzen dituen
proiektuen inguruko panel
informazioak eta argazki erakusketa

Lekua: Sanagustin Kulturunea

Herriko hiru ikastetxeetan janari
biketarako informazio puntuak eta
errefuxiatuen kanpamenduetako
argazki erakusketa

Sahararen aldeko afari musikatu
Sanagustin kulturunean

15, larunbata

BOULDER TXAPELKETA

Tokia: Gaztetxea

Ordua: 10:30ean : Umeentzat

rokodromoa 11:00etan

Hasiberrien txapelketa 15:00etan

Txapelketa herrikoia

17:30tik aurrera Elite mailako txapelketa

GABON JAIALDIA IRAURGI

Ordua: 17:00

Lekua: Izarraitz Pilotalekuan

TXIKI BIRAN SAHARAREN ALDE

HAIN ANITZA HAIN

EDERRA ipuin kontaketa

Lekua: Txiki txoko ludotekan

Ordua: 17:00

AGENDA 21-k antolatutik:

"GURE INGURUARI BEGIRADA
BAT" izenburua duen Lehiaketa

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoan

KHAMAR ELKARTEAK SAHARAR
HERRIAREKIN ELKARTASUNA

TINDUFEKO ERREFUXIATUEN

Kanpamenduetan garatzen
dituen proiektuen inguruko panel
informazioak eta argazki erakusketa

Lekua: Sanagustin Kulturunea

- Herriko hiru ikastetxeetan janari
biketarako informazio puntuak
eta errefuxiatuen kanpamenduetako
argazki erakusketa

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Abenduaren 1, 2, 6, 13, 28 eta 31.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Abenduaren 11, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23 eta 24.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Abenduaren 5, 12, 15 eta 16.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Abenduaren 3, 7, 8, 9, 14, 25 eta 26.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Abenduaren 4, 10, 27, 29 eta 30.



ONDO PASATU SANTU TAMASAK 2012

Azpeitiko Udazkeneko Azoka Berezia, dantza txapelketa, musika, buruhandiak, txorizoa, bertsolariak, pilota partidak... egun guztian zehar herriko kaleetan



Azpeitiko Udalak dei egiten dizue azpeitiar guztiei eraso sexisten aurrean jarrera aktiboa har dezazuen. Eraso sexisten aurrean 112 eta 943 151313.

